

INOIZ EZ!

(Gogoetak, burutazioak... Ez dakit)

OHARRA: Ezer baino lehenago oso komenigarritzat edo ia beharrezkotzat jotzen dut gogoeta hauek eragin dituen iturrietara jotzea. EGAÑA, Iñaki; «Azkena noiz?» LEZO 1, 1988, 67-70 orr.

Lezo kultur aldizkariaren lehen alean irakurri nuen Iñaki Egañak sinaturiko istorio batek narama hau idaztera. Lehen irakurketan, aldizkariaren ikusmiratze orokorra zelako edo, ez nion aparteko jaramonik egin baina ale hori atera zenetik hamar hilabete joan diren honetan, berriro etorri zait eskuartera eta begiratu bat eman diot.

Iñaki Egañak idatzitako «Azkena noiz?» berriz irakurri dut, baita arras interesgarria iruditu ere, aldi berean Iñakik bertan agertzen dituen kezka eta ezinegona ulertzekoak direla ikusi dut, nerau ere kezka bidean jarri bait nau.

Hasiera batean, XIX. mendeko gizon baten idazki xume bat zirudiena egiantzeko bihurtu zitzaion Iñakiri (Bere aitona Juanek idatzia).

Oso sinesgarriak dira bertan kontatzen diren gertakari zenbait, ez da fabula tradizionala bezalako zerbait, pentsatzera eta kezkatzera bultzatzen zaituen kontakizun bitxi bat da. Aipatzen diren bileretakoak omen diren lau aulki aurkitu omen zituen aitonaren baserrian; honek, eta aitona Juanek istorio edo historia hau egiazkoa zela esanez agertzen zion ziurtasunak edonor kezkarazten du. Idazkiaren bukaeran zera eskatzen du Iñakik ia erreguz; inork zazpigarren bilera baten berririk edo gertakariaren ondoko inongo berririk balu, berrari azaltzeko.

Lehenik eta behin argitu nahi nuke, nik ez daukadala inongo berririk baina bai zenbait burutazio eta gogoeta askori baliogeak irudituko zaizkionak, zer egingo diogu bada...

Zazpigarren bilera madarikatu hori dagoeneko ospatua bada bi gauza pentsa genitzake:

Istoria fabula hutsetik ez dela pasatzen eta aitona Juanek berak jarri zituela aulki horiek ganbara horretan sinesgarritasuna ematearren. Bestalde esan ere egiten zaigu bilerako pertsonaiak historiak defuntutzat dituela, baina ez dugu ahortzi behar aipatzen den 1885eko data horretan Santakruz apaiza bizi-bizirik zegoela, 1842-1926 artean bizi izan bait zen.

Bigarren ustezko egoera berriz, Euskal Herria bere benetako azkenetan dela eta ez dagoela ezer egiterik litzateke.

Ni, azken bilera hori ospatu gabea denaren ustetik abiatuko naiz. Ez dakigu lehenengo bilera noiz gertatu zen, (Euskal Herriaren gainbeheraren hasiera zatekeen) ez eta beste gainontzeko bileren datarik ere. Dakiguna da, azken bilera jakinetik 104 urte joan direla, aurreko bileren arteko urteen aldea bageneki, nolabaiteko laguntza izan zitekeen bilera madarikatu hori ospatu denez jakiteko.

Baina zer arraiio! azken bilera horrek derrigorrez gertatu behar al du? Ezin al dugu atzeratu edo zer demontre! gale-razi, ekidin?

Gure lanaren eta kontzientzia hartzearen ondorioz mehatxu hori gainetik kendu behar dugu behin betirako. Miren eta Pellotek ziotena egia bihurtzen ari

denaren edo bihurtuko denaren esperantza eduki behar dugu; Euskal Herria altza egingo zenarena alegia. Ez al da nolabaitere gaur egungo egoera edo guda zibiletik honuntz euskaldunok dugun jokabidea? Gure desagertzearen aurka eta herri errekupeazioan ez al gara ari? Ez gara burua makurtzen duen herria, horretan ez zuten arrazoiaren faltarik. Gaur egungo alor guztietako euskal pizkundea txalogarria eta itxaropentsua da; euskara berreskuratzeko ahaleginak, ikastolak Erribera, Errioxa eta Iparraldean, gazteen kontzientzia maila... nahiz eta egia izan oso kinka larrian gaudela eta sistema guztiak darabiltzatela eta askotan darabiltzagula gure aurka.

Hau horrela ez bada, nor izan liteke edo nor izan zen zazpigarren bilerakidea, Agirre akaso?

Nolanahi dela ere, ez dezagun zazpigarren bilera hori ospatzeko biderik jarri.

1989ko uztailaren 26an

Arestian irakurri duzuen hori idatzi nuenetik hiru urte joan direnean, berriz ere gaia heltzeari interesgarri iritzi diot, ez ordea zazpigarren bilera madarikatu horren berririk daukadalako, ez bait dut inongo berririk, baizik eta lehen idatzitako horri darion baikortasuna ala baikorkeria, ez dakit nola deitu, zertxobait baretzeko edo behintzat bere benetako neurrian jartzeko beharra sentitu dudalako.

Beste horretan agertzen diren esperantzak; zazpigarren bilera hori euskaldunek beren atxikimendua medio ekidingo dutena, eta euskal gazteriaren kontzientzia maila eta euskaltegiak eta

ikastolak eta hodeiak eta lainoa... lausoa... errealitatea ez ikustea. Nire oraingo aldarreak Aitorren usteetara gehiago bultzatzen nau, Miren eta Pelloten usteetara baino, euskaldunok uko egin bide diogu gure amari; Xalbadorrek zioen bezala ama abandonatu eta amaizunari abegi izugarri ona egin diogu. Ama zaharraren beharrik ez dugu, ama modernoak ederki aski betetzen du bere papera... baina erne! ez gero amizunaren aberria gure aberria denik esan! ez



horixe! orduan, «euskaldun zintzoek» suharki adieraziko bait dizute beren «vascotasuna». Enbarririk gabeko hostoak, lehen haize-boladak eramango, herri berriarentzat paregabeko ongari bilakatuko diren orbel tristetak. On Joxemiel Barandiaranekin joan ote da herri honen azken hatsa zazpigarren bilera hits horretara?

Burutazio edo gogoeta latz hauek aita Barandiaranen heriotzak eraginak dira hein handi batean baina aspaldi honetan banuen euskal kontzientzia lokartuei eztenkadatxo bat emateko gogoia, aberzale sutsu omen den geure herri honen %80 mirakulutsu horri barruak iharrausteko gogoia, ez makurkeriaz baina bai ezintasunak sortarazi ohi duen izpiritu-egoera bortitz horrek eraginik.

1.- Saran, Lapurdi, 1991ko abenduaren 20an.

Bilera, aurrekoa ospatu zen etxe berean ospatzen da, areto zabal baten erdian mahai bat ageri da eta mahaiaren inguruan zazpi aulki ikusten ahal dira, hauetarik bat hutsik. Bilerakide bakoitza, markatutako izenak hala agindurik, dago-kion aulkian jartzen da Juan de

Etxeberri etxeko nagusiak berri biltzaile papera betez. Bilerakideak honako hauek dira: Aitor, Mari Urrika, Miren Zozalla, Beñat Utxiat, Pellot Dazpilkueta eta Santakrutz apaiza. Hauetariko bakoitza historiak zentzuzat dauka baina, egia, Euskal Herriko mendi itsaso eta basoetan barna dabilzana da.

Zazpigarren bilera honetako lehen saioaren xedea zazpigarren bilerakidea aukeratzea da, hautu bakoitzak euskaldunontzat galera edo gainbeheraren bat dakarrelarik alorren batean edo bestean.

Zazpigarren kide izan dadin On Joxemiel Barandiaran aukeratzen dute, Euskal Herriak, asaba zaharrekiko loturak apurtuak edo apurtzear ditu, hitz batean izpiritua galdu du edo kasik galdu du.

2.- Abenduak 21. Goizeko lehen orduan On Joxemiel agertzen da etxean, lehen lana hutsik dagoen aulkian bere izena markatzea delarik. Ondoren behar diren aurkezpenak eta azalpenak ematen dizkiote.

3.- Abenduak 22. Bileraren azken saioa izanik zirt edo zart egiteko ordua iritsi zen. Bilerakide guztiek etsipen aurpegi zurbilak zerakuskiten, bilera hark Euskal Herriaren heriotza ekarriko bait zuen.

Luze mintzatu ostean, On Joxemielek hitza eskatu zuen.

«Euskal jaun txit argi eta handi horiek, nire apaltasunean eta unearen erabakigarritasunean proposamen bat egin nahi diot mahai honi; nire bizitza luzearen joanean ikusitakoek esperantza izpiren bat sortu dute ene baitan, bizitzari zirrikituren bat ireki dakiokela uste dut bene-benetan eta ondorioz honako hau

diot; eman diezaiogun Euskal Herriari aurrera egiteko beste aukera bat, ez dezagun herio-agiririk sinatu. Gaur gaueko hamabietatik aitzinera, Nafarroako Irañetan, guraso euskaldunetarik sortuko den lehen haurrak Atarrabi eramango du izentzat mutikoa bada eta Ekhiñe emaztekoa bada, haur hori ehun urtez biziko da eta epe hori izango du gure herriak salba dadin luzapen gisa. Euskal Herriari egokituko zaio epe horretan, zer nahi duenaren hautua egitea, erdal herri bilakatu, Espainia eta Frantziako probintzia multzo gisa ala Euskal Herria izan ondorio guztiak bere gain hartuz. Hauxe da nik zuei, adiskide agurgarrioi, luzatzen dizuedan proposamena».

Hau entzunik, hasieran, marmar-soinua hedatu zen areto hartan eta bistan ziren batzuen zalantzak horrekin ezer ihardetsi zitekeenez, baina luze gabe ahobatez onartua izan zen On Joxemielek egin proposamena.

Luzapen honen ostean berriz bilduko ziren zazpi bilerakideak, eta ordurako, euskaldunek, jarritako baldintzak bete ez balituzte akabo, bete balituzte aldiz, bilera hauek desagertuko lirateke bilera-kideak betiko bakean biziz.

Erabakitako baldintzak hauek izan ziren:

— Euskara indartu, zabaldu eta batez ere erabili.

— Euskal nortasunari ez ukorik egin.

— Sei herrialdeen lurraldetasuna gorde.

Bilerakideek elkar agurtu zuten ondoren haizearekin joanez.

Guri dagokigu orain baldintza horiek betetzea, haur hori jadanik sortua da eta epea agortuz doa. Ez diezaiegun bada bilerakideei huts egin edo okerragoa litzatekeena, ez diezaiogun geure buruari egin.

JOXE LUIX AGIRRETXE